

**SAN MARTIN AGIRRE IKASTETXEA ETA BERGARAKO UDALAREN ARTEKO
HITZARMENA UDA AKTIBOA PROGRAMARAKO**

Bergaran, bi mila eta hogeiko uztailaren 3an

BILDU DIRA

Gorka Artola Alberdi jauna, Bergarako Alkatea, Bergarako Udalaren ordezkarietan.

Jose Ramon Lasa Arana jauna, adinez nagusia, zenbakiko NA duena,
San Martin Agirre ikastetxeko zuzendaria, San Martin Agirre ikastetxearen ordezkarietan.

Jose Ramon Lasa Arana, Alkatearen aurrean adierazi ondoren bera eta berak
ordezkatzen duen ikastetxea ez daudela Estatuaren 2003ko azaroaren 17ko 38/2003
Legeak aurreikusitako debeku kasuetan, bi aldeek elkar behartzeko ahalmena aitortu eta
ondorengoa

ADIERAZI DUTE

2020. urtea, COVID-19ak baldintzatu du erabat. Herriko umeen aisialdia ere erabat
baldintzatu da gelditu da.

Udalak ezin izan du udako ohiko aisialdi eskaintza gauzatu: udaleku irekiak, kirol kanpua,
museoko tailerrak, etab...

Testuinguru honetan 2020ko ekainaren 17an argitaratu zen ekainaren 10eko aginduari
jarraituz, haurren eta gazteen hezkuntza-aisialdiko jardueri berriro nola ekin arautzen duena
ikusita, udalak 2020ko UDA AKTIBOA programa aurrera eramateko eskolei Haur
Hezkuntzako umeen antolaketa beraien gain hartzea eskatu die eta laguntza ekonomikoa
eskaini die. Ikastetxeek onartu egin dute.

Honela, beraz, bi aldeek honako klausulak dituen hitzarmena egitea onartu dute:

KLAUSULAK

LEHENENGOA: San Martin Agirre ikastetxeak uda aktiboa programa antolatuko du Haur
Hezkuntzako umeei zuzenduta (2014-2017 urteetan jaiotako haurrak) gutxienez ondorengo
egun eta ordutegian:

-Ekainaren 29tik uztailaren 24ra.

-10:00 – 13:00.

Ikastetxeak gehienez 72 ume hartuko ditu programa honetan.

BIGARRENA: Udalak gehienez 15.264€-ko diru-laguntza emango du 72 umeren uda
aktiboaren antolaketagatik. Ume kopurua baxuagoa bada, gehienezko kopuru hori hiruko
erregelaren bidez jaitsiko da.

Ordainketa honen arabera egingo da:

-Tarifa arrunta ordaintzen duen ume bakoitzeko udalak 132€ ordainduko dizkio
gehienez ikastetxeari.

-Tarifa soziala ordaintzen duen ume bakoitzeko udalak 212€ ordainduko dizkio
gehienez ikastetxeari.

-Gizarte zerbitzuetako txostenarekin bideratutako haurren kostu osoa bere gain hartuko du udalak, 275€ ume bakoitzeko.

San Martin Agirre ikastetxearen kasuan 2014-2017 urte bitarteko 13 umek izena eman dute uda aktiborako, 11 tarifa arruntekoak, 1 tarifa sozialekoa eta beste 1 gizarte zerbitzuetatik bideratutakoa. Beraz, Bergarako Udalak San Martin Agirre ikastetxeari emango dion diru-laguntza 1.939€-koa izango da.

HIRUGARRENA: Zerbitzua antolatzeko baldintzak ondorengoak dira:

-Lehentasuna izango dute ikastetxeek antolatutako zaintzan parte hartzeko udalak jarritako baldintzak betetzen dituztenak. Baldintzak ondorengoak dira: guraso biak lanean dituzten umeak, banandutako gurasoak direnean gutxienez bat lanean dagoenean, guraso bakarreko familiak eta egoera zaurgarrian daudenak.

-Aurreko puntuko izen ematearekin gehienezko kopurura heltzen ez bada (kontuan izan 72 ume baino gehiago ezin izango dituela hartu) ikastetxearen esku egongo da jaso diren izen emateetatik aurrerakoak hartzea: zozketa bidez, izen emate ordenaren bidez; etab...

-Familiei bi tarifa eskainiko zaizkie diru-sarreraren arabera. Tarifa soziala aplikatuko zaie Bergaran errolatuta egon eta urtean diru sarrera hauek baino baxuagoak dituzten unitate familiarrei:

Bi pertsonako unitate familiarra	20.105,04 €
Hiru pertsonako unitate familiarra	23.776,22 €
Lau pertsona edo gehiagoko unitate familiarra	27.447,27 €

-Familiek ordaindu beharreko kuotak hauek izango dira:

-Tarifa arrunta: 3 aste 105€ / 4 aste 140€

-Tarifa soziala: 3 aste 45€ / 4 aste 60€

-Udalak ez du bere gain hartuko aurreko puntuan zehaztutako baldintzak betetzen ez dituzten familien zaintza zerbitzuaren kostua.

LAUGARRENA: Diru-laguntza hori uda aktiboa programa bukatutakoan ordainduko da. Ikastetxeak 2020ko irailaren 18a baino lehen ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- 1) Diruz lagundutako jarduerari buruzko txostena (memoria).
- 2) Diruz lagundutako jardueraren diru sarrera eta gastuen balantzea. Izandako gastuak eta dagozkien fakturak eta azkenik, jarduera bererako beste Administrazio edo erakunde pribatu zein publiko batzuek edo gurasoek emandako diru-laguntzak.
- 3) Jarduerak sortutako dokumentazio, foileto eta abarren ale bana aurkeztu beharko da.
- 4) Ikastetxean izena eman duten haurren kopurua eta hauek ordaindutako tarifa.

Dokumentazioa Udalak ontzat emandakoan egingo da ordainketa.

BOSTGARRENA: Diru-laguntzak ez du inoiz jarduerak izandako defizita gaintutako, defizita ume bakoitzeko udalak aurreikusitakoa baino baxuagoa bada, udalak defizit errearen kostua ordainduko du. Ez gehiago.



Bergarako
Udala

SEIGARRENA: San Martin Agirre ikastetxeak 2020ko ekainaren 17ko EHAAn jasotako ekainaren 10eko agindua zorrotz betetzeko konpromisoa bere gain hartzen du, baita COVID-19-aren testuinguruan goragoko administrazioek zehaztutako neurri higieniko sanitarioak betetzeko ere. Kontestu honetan jarduteko protokoloa onartuko du eta parte-hartzaileei jakinaraziko die.

ZAZPIGARRENA: Hitzarmen hau indarrean egongo da hitzarmena sinatzen den egunetik hemen jasotakoa bete arte.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, goian aipatutako toki eta egunean hirukoiztuta sinatzen dute.

Jose Ramon Lasa Arana
San Martin Agirre ikastetxeko zuzendaria



Gorka Artola Alberdi
Bergarako alkatea



ARANZADI IKASTOLA ETA BERGARAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA UDA AKTIBOA PROGRAMARAKO

Bergaran, bi mila eta hogeiko uztailaren 3an

BILDU DIRA

Gorka Artola Alberdi jauna, Bergarako Alkatea, Bergarako Udalaren ordezkarietan.

Agurtzane Loidi Larrañaga andrea, adinez nagusia, zenbakiko, NA duena, Bergarako Aranzadi ikastolako gerentea, Aranzadi ikastolaren ordezkarietan.

Agurtzane Loidi Larrañaga andreak Alkatearen aurrean adierazi ondoren bera eta berak ordezkatzeko duen ikastola ez daudela Estatuaren 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak aurreikusitako debeku kasuetan, bi aldeek elkar behartzeko ahalmena aitortu eta ondorengo

ADIERAZI DUTE

2020. urtea, COVID-19ak baldintzatu du erabat. Herriko umeen aisialdia ere erabat baldintzatuta gelditu da.

Udalak ezin izan du udako ohiko aisialdi eskaintza gauzatu: udaleku irekiak, kirol kanpua, museoko tailerrak, etab...

Testuinguru honetan 2020ko ekainaren 17an argitaratu zen ekainaren 10eko aginduari jarraituz, haurren eta gazteen hezkuntza-aisialdiko jardueri berriro nola ekin arautzen duena ikusita, udalak 2020ko UDA AKTIBOA programa aurrera eramateko eskolei Haur Hezkuntzako umeen antolaketa beraien gain hartzea eskatu die eta laguntza ekonomikoa eskaini die. Ikastetxeek onartu egin dute.

Honela, beraz, bi aldeek honako klausulak dituen hitzarmena egitea onartu dute:

KLAUSULAK

LEHENENGOA: Aranzadi ikastolak uda aktiboa programa antolatuko du Haur Hezkuntzako umei zuzenduta (2014-2017 urteetan jaiotako haurrak) gutxienez ondorengo egun eta ordutegian:

-Ekainaren 29tik uztailaren 24ra.

-10:00 – 13:00.

Ikastetxeak gehienez 72 ume hartuko ditu programa honetan.

BIGARRENA: Udalak gehienez 15.264€-ko diru-laguntza emango du 72 umeren uda aktiboaren antolaketagatik. Ume kopurua baxuagoa bada, gehienezko kopuru hori hiruko erregelaren bidez jaitsiko da.

Ordainketa honen arabera egingo da:

-Tarifa arrunta ordaintzen duen ume bakoitzeko udalak 132€ ordainduko dizkio gehienez ikastetxeari.

-Tarifa soziala ordaintzen duen ume bakoitzeko udalak 212€ ordainduko dizkio gehienez ikastetxeari.

~~-Gizarte zerbitzuetako txostenarekin bideratutako haurren kostu osoa bere gain hartuko du udalak, 275€ ume bakoitzeko.~~



Aranzadi ikastolaren kasuan 2014-2017 urte bitartean jaiotako 53 ume izena eman dute uda aktiborako, guztiak tarifa arruntekoak. Beraz, Bergarako Udalak Aranzadi ikastolari emango dion diru-laguntza 6.996€-koa izango da.

HIRUGARRENA: Zerbitzua antolatzeke baldintzak ondorengoak dira:

-Lehentasuna izango dute ikastetxeek antolatutako zaintzan parte hartzeko udalak jarritako baldintzak betetzen dituztenak. Baldintzak ondorengoak dira: guraso biak lanean dituzten umeak, banandutako gurasoak direnean gutxienez bat lanean dagoenean, guraso bakarreko familiak eta egoera zaurgarrian daudenak.

-Aurreko puntuko izen ematearekin gehienezko kopurura heltzen ez bada (kontuan izan 72 ume baino gehiago ezin izango dituela hartu) ikastetxearen esku egongo da jaso diren izen emateetatik aurrerakoak hartzea: zozketa bidez, izen emate ordenaren bidez, etab...

-Familiei bi tarifa eskainiko zaizkie diru-sarreraren arabera. Tarifa soziala aplikatuko zaie Bergaran erroldatuta egon eta urtean diru sarrera hauek baino baxuagoak dituzten unitate familiarrei:

Bi pertsonako unitate familiarra	20.105,04 €
Hiru pertsonako unitate familiarra	23.776,22 €
Lau pertsona edo gehiagoko unitate familiarra	27.447,27 €

-Familiek ordaindu beharreko kuotak hauek izango dira:

-Tarifa arrunta: 3 aste 105€ / 4 aste 140€

-Tarifa soziala: 3 aste 45€ / 4 aste 60€

-Udalak ez du bere gain hartuko klausula honetako lehenengo puntuan zehaztutako baldintzak betetzen ez dituzten familien zaintza zerbitzuaren kostua.

LAUGARRENA: Diru-laguntza hori uda aktiboa programa bukatutakoan ordainduko da. Ikastetxeak 2020ko irailaren 18a baino lehen ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- 1) Diruz lagundutako jarduerari buruzko txostena (memoria).
- 2) Diruz lagundutako jardueraren diru sarrera eta gastuen balantzea. Izandako gastuak eta dagozkien fakturak eta azkenik, jarduera bererako beste Administrazio edo erakunde pribatu zein publiko batzuek edo gurasoek emandako diru-laguntzak.
- 3) Jarduerak sortutako dokumentazio, foileto eta abarren ale bana aurkeztu beharko da.
- 4) Ikastetxean izena eman duten haurren kopurua eta hauek ordaindutako tarifa.

Dokumentazioa Udalak ontzat emandakoan egingo da ordainketa.

BOSTGARRENA: Diru-laguntzak ez du inoiz jarduerak izandako defizita gaintutako, defizita ume bakoitzeko udalak aurreikusitakoa baino baxuagoa bada, udalak defizit errearen kostua ordainduko du. Ez gehiago.

SEIGARRENA: Aranzadi ikastolak 2020ko ekainaren 17ko EHAAn jasotako ekainaren 10eko agindua zorrotz betetzeko konpromisoa bere gain hartzen du, baita COVID-19-aren testuinguruan goragoko administrazioek zehaztutako neurri higieniko sanitarioak betetzeko ere. Baita programa garatzen ari den bitartean emandako gainontzeko aginduak ere. Kontestu honetan jarduteko protokoloa onartuko du eta parte-hartzaileei jakinaraziko die.



Begarako
Udala

ZAZPIGARRENA: Hitzarmen hau indarrean egongo da hitzarmena sinatzen den egunetik hemen jasotakoa bete arte.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, goian aipatutako toki eta egunean hirukoiztuta sinatzen dute.

Agurtzane Loidi Larrañaga
Aranzadi ikastolako gerentea



Gorka Artola Alberdi
Begarako alkatea



THE UNIVERSITY OF CHICAGO PRESS

CHICAGO, ILLINOIS

1960

1960



Bergarako
Udala

MARIAREN LAGUNDIA IKASTOLA ETA BERGARAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA UDA AKTIBOA PROGRAMARAKO

Bergaran, bi mila eta hogeiko uztailaren 3an

BILDU DIRA

Gorka Artola Alberdi jauna, Bergarako Alkatea, Bergarako Udalaren ordezkari.

Gotzon Iparragirre San Sebastian jauna, adinez nagusia, zenbakiko ,
NA duena, Mariaren Lagundia ikastolako zuzendaria, Mariaren Lagundia ikastolaren
ordezkari.

Gotzon Iparragirre San Sebastian jaunak, Alkatearen aurrean adierazi ondoren bera
eta berak ordezkari duen institutua ez daudela Estatuaren 2003ko azaroaren 17ko
38/2003 Legeak aurreikusitako debeku kasuetan, bi aldeek elkar behartzeko ahalmena
aitortu eta ondorengo

ADIERAZI DUTE

2020. urtea, COVID-19ak baldintzatu du erabat. Herriko umeen aisialdia ere erabat
baldintzatuta gelditu da.

Udalak ezin izan du udako ohiko aisialdi eskaintza gauzatu: udaleku irekiak, kirol kanpua,
museoko tailerrak, etab...

Testuinguru honetan 2020ko ekainaren 17an argitaratu zen ekainaren 10eko aginduari
jarraituz, haurren eta gazteen hezkuntza-aisialdiko jardueri berriro nola ekin arautzen duena
ikusita, udalak 2020ko UDA AKTIBOA programa aurrera eramateko eskolei Haur
Hezkuntzako umeen antolaketa beraien gain hartzea eskatu die eta laguntza ekonomikoa
eskaini die. Ikastetxeek onartu egin dute.

Honela, beraz, bi aldeek honako klausulak dituen hitzarmena egitea onartu dute:

KLAUSULAK

LEHENENGOA: Mariaren Lagundia ikastolak uda aktiboa programa antolatuko du Haur
Hezkuntzako umei zuzenduta (2014-2017 urteetan jaiotako haurrak) gutxienez ondorengo
egun eta ordutegian:

-Ekainaren 29tik uztailaren 24ra.

-10:00 – 13:00.

Ikastetxeak gehienez 72 ume hartuko ditu programa honetan.

BIGARRENA: Udalak gehienez 15.264€-ko diru-laguntza emango du 72 umeren uda
aktiboaren antolaketagatik. Ume kopurua baxuagoa bada, gehienezko kopuru hori hiruko
erregelaren bidez jaitziko da.

Ordainketa honen arabera egingo da:

-Tarifa arrunta ordaintzen duen ume bakoitzeko udalak 132€ ordainduko dizkio
gehienez ikastetxeari.

-Tarifa soziala ordaintzen duen ume bakoitzeko udalak 212€ ordainduko dizkio
gehienez ikastetxeari.



-Gizarte zerbitzuetako txostenarekin bideratutako haurren kostu osoa bere gain hartuko du udalak, 275€ ume bakoitzeko.

Mariaren Lagundia ikastolaren kasuan 2014-2017 urte bitarteko 19 umek izena eman dute uda aktiborako, 16 tarifa arruntekoak eta 1 tarifa sozialekoa eta 2 gizarte zerbitzuetatik bideratutakoa. Beraz, Bergarako Udalak Mariaren Lagundia ikastolari emango dion diru-laguntza 2.874€-koa izango da.

HIRUGARRENA: Zerbitzua antolatzeke baldintzak ondorengoak dira:

-Lehentasuna izango dute ikastetxeek antolatutako zaintzan parte hartzeko udalak jarritako baldintzak betetzen dituztenak. Baldintzak ondorengoak dira: guraso biak lanean dituzten umeak, banandutako gurasoak direnean gutxienez bat lanean dagoenean, guraso bakarreko familiak eta egoera zaurgarrian daudenak.

-Aurreko puntuko izen ematearekin gehienezko kopurura heltzen ez bada (kontuan izan 72 ume baino gehiago ezin izango dituela hartu) ikastetxearen esku egongo da jaso diren izen emateetatik aurrerakoak hartzea: zozketa bidez, izen emate ordenaren bidez, etab...

-Familiei bi tarifa eskainiko zaizkie diru-sarreraren arabera. Tarifa soziala aplikatuko zaie Bergaran erroldatuta egon eta urtean diru sarrera hauek baino baxuagoak dituzten unitate familiarrei:

Bi pertsonako unitate familiarra	20.105,04 €
Hiru pertsonako unitate familiarra	23.776,22 €
Lau pertsona edo gehiagoko unitate familiarra	27.447,27 €

-Familiek ordaindu beharreko kuotak hauek izango dira:

-Tarifa arrunta: 3 aste 105€ / 4 aste 140€

-Tarifa soziala: 3 aste 45€ / 4 aste 60€

-Udalak ez du bere gain hartuko aurreko puntuan zehaztutako baldintzak betetzen ez dituzten familien zaintza zerbitzuaren kostua.

LAUGARRENA: Diru-laguntza hori uda aktiboa programa bukatutakoan ordainduko da. Ikastetxeak 2020ko irailaren 18a baino lehen ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- 1) Diruz lagundutako jarduerari buruzko txostena (memoria).
- 2) Diruz lagundutako jardueraren diru sarrera eta gastuen balantzea. Izandako gastuak eta dagozkien fakturak eta azkenik, jarduera bererako beste Administrazio edo erakunde pribatu zein publiko batzuek edo gurasoek emandako diru-laguntzak.
- 3) Jarduerak sortutako dokumentazio, foileto eta abarren ale bana aurkeztu beharko da.
- 4) Ikastetxean izena eman duten haurren kopurua eta hauek ordaindutako tarifa.

Dokumentazioa Udalak ontzat emandakoan egingo da ordainketa.

BOSTGARRENA: Diru-laguntzak ez du inoiz jarduerak izandako defizita gaindituko, defizita ume bakoitzeko udalak aurreikusitakoa baino baxuagoa bada, udalak defizit errearen kostua ordainduko du. Ez gehiago.

Eskubide



Bergarako
Udala

SEIGARRENA: Mariaren Lagundia ikastolak 2020ko ekainaren 17ko EHAAn jasotako ekainaren 10eko agindua zorrotz betetzeko konpromisoa bere gain hartzen du, baita COVI19-aren testuinguruan goragoko administrazioek zehaztutako neurri higieniko sanitarioak betetzeko ere. Kontestu honetan jarduteko protokoloa onartuko du eta parte-hartzaileei jakinaraziko die.

ZAZPIGARRENA: Hitzarmen hau indarrean egongo da hitzarmena sinatzen den egunetik hemen jasotakoa bete arte.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, goian aipatutako toki eta egunean hirukoiztuta sinatzen dute.

Gotzon Iparragirre San Sebastian jauna
Mariaren Lagundia ikastolako zuzendaria

Gorka Artola Alberdi
Bergarako alkatea

